415 zenbakia. 2000ko ekainaren 23a
JARDUN ELKARTEA

# Berrigara

Bergarako astekaria




## Fernando Markina

# Arku tiraketan maisu

OPEL

TALLERES OLA
Olabarren auzoa z/g.
Tf: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.
Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea 3 (Eskatu edifizioa).
Tf: 943 79 05 86
OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK



Clínica Oftalmológica
# RECALDE
Oftalmologi Klinika



**Oftalmologia Orokorra**
- Kontsultak eta azterketak.
- Glaukoma eta kataratak kentzeko operazioak.
- Erretinaren gaitzen tratamentua.
- Larrialdiak.

**Lasik sistemaren bidez Laser Excimer-ez egindako zirugia errefraktiboa**
Miopia, astigmatismoa eta hipermetropia kentzeko operazioak, azken berrikuntzekin (topografia korneal).

**Kontaktologia. Lentillak**
Espezializazio handiko lantaldeak era guztietako kontaktu-lenteak egokitzen ditu.

**Zentro psikoteknikoa**
Inongo tramiterik gabe, gidatzeko eta ehizarako baimenak lortuko dituzu.








**RECALDE Oftalmologi Klinika**

Plaza Barria, 2-2.a -Tfnoa.: 943 20 18 44
20600 EIBAR (Gipuzkoa)
E-maila: clinicarecalde@sarenet.es



# Biokaikuak, hozkailura!

**Markos Balentziaga** / Irakaslea

Ez doguz oraingo honetxek sasoi nasaixak bizitzeko edozein jarduerataan be. Lan eskaintzaren bat zabaltzen dala hedabideetan? Han zoiaz izena emotera, eta zurekin batera... fraille batek bedeinkatu ahala jende! Oposiziñuak deittu dittuala administraziñuak? Opositore-azauak burkadaka zure albuan!

Portunau jakun mundu honetan ez dago interes sozial, ekonomiko edo kulturaleko ezer be lehia eta burruka barik irabazi leikianik.

Hara: Afrikatik zezen-narrua ei daneko honen tripa barrenera iristen diran koittauak ez dira bizitzia bera jokatu barik allegatzen zori demonioko patera horretan. Edota eguzki-Europatik milla teleserietan miretsitako mendebaleko Europara datozen errusiar, polones, ukrainar eta ostientzekuak euren herrialdeetan miseriaren gorrixari eta jesusenak eta biri gaña irabazitta datoz bizimodu hobiaren miran.

Eta beittu zela diran kontuak: gure bizibihar petral honez gogoeta eitten dihardogun bittartian, horra non datorkun armada españarra: atiak, zubixak, zubibidiak, pistak eta autopistak zabalduaz eta lautuaz... soldadutzarako bidia errezteko! Eta oraiñ arte adimengaitasuna zala eta, mozolo akabera bako eta "gauzaez" ziranak, "gai" bihurtu nahi dittu. Bapo!

Beste edozeiñek juan ahal bajok, adimen motzekuak be zergatik ez dittuk ba juango soldadu? Zergatik ez emon aukera hori? galdetuko dau baten batek, akaso.

Egixa da bakoitzak bere albidade eta graziak dittuana eta horrekin konpondu biharra daukana bizitzan zihar. Ederki azaltzen dau pentsakizun hori J.B.Elizanburu lapurtar poeta fiñak bertso eder honetan:

*Egun ni naizenean Azkaina hurbildu*
*Hiru graziek naute bidean gelditu;*
*Biek erakutsiak batek gorde ditu...*
*ez zituen gordeko ederrak balitu!*

> *"Nori beria baldin bada legia, hauxe da, nere ustez, eginbidia: biokaikuak, soldadutzara barik, frigora; soldadutzia, ostera, txakurraren salara!"*

Kontua da soldadutzan erremintak erabilten ikasten dala..., baña, kontxo, soldaduen erreminta korrientiak ez dira mallukia eta porrikak, su eitteko armak baño! Igualeko kontua da ba!

Pentsatzen jarri eta akaso insumisojendiak juerga ederrian eratzen dittuan soldadutziaren kontrako protesta-jardunak ez lirake okerrerako izango armada españarrak soldadutzara eruan nahi dittuan *biokaikuendako*: fantasia lantzen, behintzat, ikasiko leukie, insumisoen jardueretan irudimen faltarik ez da izaten eta!

Nori beria baldin bada legia, hauxe da, nere ustez, eginbidia: biokaikuak, soldadutzara barik, frigora; soldadutzia, ostera, txakurraren salara!<

**barruan**




**Igor Oruesagasti**
Elur Txiki elkarteko kidea
***"Elosu auzoari bizitza handiagoa ematea du helburu Elur Txiki elkarteak"***
8.



**Aitor Rementeria**
Triatleta
***"Zarauzko moduko triatloia urtean behin egiteko da, oso gogorra baita"***
19.



**Juan Carlos Poza**
San Lorentzoko gasolindegikoa
***"Gasoliniaren prezioa igotzen dabenian, danetik esaten doskue, baiña katxondeuan"***
27.

# AGENDA ETA ZERBITZUAK

**gazte informazioa**

**BEKAK**
**Kazetaritza zientifikoa.**
Elhuyar. Unibertsitateko goi edo erdi-mailako titulazioa, atzerriko hizkuntzak. Esperientzia profesionala lortzeko beka. Epea: ekainak 30.

**IKASTAROAK**
**Jazz mintegia.**
Zarauzko Udala. Ikasle zein profesionalentzat. Jazz garaikidearen lengoaiari eta filmetako soinu-bandei buruzko mintegia, uztailaren 24tik 30era arte. Epea: uztailak 15.
**Karrerei buruzko informazioa.**
Ikasketen programazioa, unibertsitatean sartzeko puntuazioa, bekak, masterrak eta abar.

**LEHIAKETAK**
**Urretxu-Zumarragako udalak.**
Argazki, pintura, bertso paper eta komikia. Epea: irailak 8.
**Gazteak eta arrazakeria.**
Arrasateko Udala. Argazki lehiaketa, 35 urtetik beherako gazteentzat. Argazkizaletasuna eta hausnarketa bultzatzeko asmoz. Epea: urriak 11.

**LAN ESKAINTZAK**
**Euskarako irakasleak.**
Errenteriako Udala. Magisteritza titulazioa, lizentziatura, euskaltegiko irakasle titulazioa edo EGA. Merituen arabera osaturiko lan poltsa.
Epea: ekainak 30.
**Administraritza bereziko teknikoa.**
Eibarko Udala. Goi-mailako arkitektoa, euskarazko H.E 4. Lehiaketa-oposizio bitarteko plaza. Epea: ekainak 27.
**Administrari laguntzailea.**
Eibarko Udala. L.H.1 titulazioa, Eskola Graduatua edo baliokidea. Euskarazko H.E.2. Lehiaketa-oposizio bitarteko plaza. Epea: ekainak 27.

**BESTELAKOAK**
**Euskal Herriko Unibertsitaterako aurrematrikula egin zenuten ikasleentzat.**
Aurrematrikula aldatzeko aukera dago ekainaren 26tik 30era Donostiako Akademi Gestiorako Errektoreordetzan.

**KARNETAK**
Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

**INFORMAZIO GEHIAGO:**
BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA (Kultur Etxea)
TELEFONOA: 943 77 91 57.
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna/ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30

**OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.**

## bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Drogosua**

Istilu zalea.

*-Arekin ibiltziak billurra emute juan, drogoso utsa zuan da.*




## Tenperaturak eta euria Bergaran

San Joan auzoan Luis Mari Agirrek hartutako datuak

| | max. °C | min. °C | euria l/m² |
|---|---|---|---|
| **Eguena 15** | 30 | 14 | - |
| **Eguakitza 16** | 35 | 15 | - |
| **Zapatua 17** | 35 | 13 | - |
| **Domeka 18** | 34 | 15 | - |
| **Astelehena 19** | 33 | 21 | - |
| **Martitzena 20** | 31 | 16 | - |
| **Eguaztena 21** | 26 | 15 | 0,4 |

## Farmaziak

**Eguakitza 23:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

**Zapatua 24:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

**Domeka 25:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

**Astelehena 26:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

**Martitzena 27:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

**Eguaztena 28:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Eguena 29:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

## Ogia

**Domeka 25:** Mizpildi.

## mezak

**Santa Marina**
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

**San Pedro**
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

**Osintxu**
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

**Elosu**
Domekak: 10:00.

**Ubera**
Domekak: 10:30.

**San Juan**
Domekak: 11:00.

**Basalgo**
Domekak: 13:00.

**San Prudentzio**
Domekak: 10:30.

**Labegaraieta**
Domekak: 11:00.

**San Lorentzo**
Zapatuak: 20:00.

**Angiozar**
Domekak: 11:00.
Eguakitza: 19:00.

**Monja Zaharrak**
Domekak: 18:00.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

**Mizpirualde**
Domekak: 11:45.
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

**Antzuola**
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

**Uzarraga**
Domeka: 10:00.

**URTE-MEZAK**
**Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan 11:30etan.
**San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan 12:30etan.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Bergarako udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Antzuolako udaltzaingoa | 943 76 62 46 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitalea | 943 03 53 00 |
| Mendaroko ospitalea | 943 03 28 00 |
| Zumarragako ospitalea | 943 03 50 00 |
| Arantzazuko osp. (Donostia) | 943 00 70 00 |
| Santiago ospit. (Gasteiz) | 945 00 76 00 |
| Txagorritxu osp. (Gasteiz) | 945 00 70 00 |
| Basurtoko ospitalea | 94 400 60 00 |
| Galdakaoko ospitalea | 94 400 70 00 |
| Gurutzetako ospitalea | 94 600 60 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| Odol emaleak | 943 76 16 24 |
| Itxaropenaren telefonoa | 943 45 80 05 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Bergarako udaletxea | 943 77 91 00 |
| Antzuolako udaletxea | 943 76 62 46 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Kiroldegia | 943 76 56 41 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **ABERIAK / ISTRIPUAK** | |
| Argindarra. Iberdrola | 901 20 20 20 |
| Grua. Ibai | 608 67 68 21 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Idolaz | 943 76 65 08 |
| Jubilatuen Etxea. Bergara | 943 76 21 40 |
| Antzuolako jubilatuen elk. | 943 76 62 71 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |
| Bedelkar | 943 76 04 68 |
| Akulu AEK | 943 76 05 18 |
| Udal euskaltegia | 943 76 44 53 |
| Bergarako notaritza | 943 76 10 73 |

# zorion agurrak


**Maite Alberdi**
25ean 5 urte.
Urte askotarako!
Eukene.


**Julen Sanchez**
28an 5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Olaia.


**Jon Sarasketa**
23an 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.


**Jone Olabarria**
24an 3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.


**Mikel Rodriguez**
23an 4 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.


**Inazio Arriola**
23an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.


**Julen Urtaza**
25ean 4 urte.
Urte askotarako!
Amama eta izebak.


**Lierni Azpeitia**
28an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.


**Nahia Cotillas**
28an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Jon.


**Matxalen Zezeaga**
24an 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Josu.


**Ibon Berraondo**
23an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.


**Xabier Berasategi**
25ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.


**Juan Maria Vicente**
23an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Tere eta Lorea.


**Javi Lucena**
25ean 15 urte.
Urte askotarako!
Bergarako familiakoak.


**Aintzane Olabarria**
27an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.


**Iker Blas**
27an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta aita.


**Oskar Ferreiro**
24an 14 urte.
Urte askotarako!
Amama eta etxekoak.


**Sara Manzano**
28an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

*ESKER ONA*

## Klara Telleria Oruna

Bergaran hil zen
2000ko ekainaren 17an,
86 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko Santana-Boluko sendikoen izenean.*

*ESKER ONA*

## Migel Mari Basterra Muruamendiaraz

Parisen hil zen
2000ko ekainaren 8an,
69 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko sendikoen izenean.*

## hildakoak

**BERGARA**
**Maria Luisa Alzelai Irazola**
Ekainak 17, 92 urte
**Klara Telleria Oruna**
Ekainak 17, 86 urte
**Alberto Aprell Artamendi**
Ekainak 17
**Carmen Gomez Caceres**
Ekainak 19, 77 urte
**Trinidad Eguren Agirrezabal**
Ekainak 21, 79 urte

## jaiotakoak

**BERGARA**
**Gorka Urzelai Garcia**
Ekainak 7
**Jon Arozena Gonzalez**
Ekainak 17
**ANTZUOLA**
**Aimar Larrea Aranguren**
Ekainak 10

*Hurrengo alean, **ekainaren 30etik uztailaren 6ra** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.*

## autobusak

**Bergara-Antzuola.** *Lanegunak:* 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30. *Zapatuak:* 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. *Domeka eta jaieg.:* 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.
**Antzuola-Bergara.** *Lanegunak:* 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40. *Zapatuak:* 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.
**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** *Lanegunak:* 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. *Zapatuak:* 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)
**Bergara-Gasteiz.** *Lanegunak:* 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. *Zapatuak:* 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.
**Gasteiz-Bergara.** *Lanegunak:* 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Zapatuak:* 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.
**Arrasate-Bergara.** *Lanegunak:* 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08: 05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. *Zapatuak:* 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20 . *Domeka eta jaiegunak:* 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.
**Bergara-Oñati.** *Lanegunak:* 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. *Zapatuak:* 20:45. *Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.*
**Oñati-Bergara.** *Lanegunak:* 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. *Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.*
**Bergara-Eibar.** *Lanegunak:* 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Zapatuak:* 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Domeka eta jaiegunak:* 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.
**Eibar-Bergara.** *Lanegunak:* 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Zapatuak:* 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45,15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Domeka eta jaiegunak:* 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.
**Bergara-Donostia (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. *Zapatuak:* 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. *Domeka eta jaieg.:* 10:05, 19:35.
**Bergara-Donostia (Tolosatik).** *Lanegunak:* 09:00, 18:00. *Zapatuak:* 09:00, 18:00. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 18:00.
**Donostia-Bergara (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. *Zapatuak:* 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. *Domeka eta jaieg.:* 18:00, 20:45.
**Donostia-Bergara (Tolosatik).** *Lanegunak:* 07:00, 16:30. *Zapatuak:* 07:00, 16:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 19:00.
**Bergara-Bilbo.** *Laneg.:* 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. *Zapatuak:* 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. *Domeka eta jaieg.:* 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.
**Bilbo-Bergara.** *Lanegunak:* 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. *Zapatuak:* 08:00, 17:00, 20:00. *Domeka eta jaiegunak:* 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

# MUSIKA

▶ **Kañeria 13, Eraso!, Selektha Kolektiboa, The Hot Dogs eta Ekon** taldeak bihar, zapatua, 20:00etan Arrasaten, Monterronen. Jarraian, 23:15ean, **Gozategi** taldearekin dantzaldia Plazan.

▶ **Betagarri** taldearen kontzertua domekan, gauerdian, Arrasaten, txozna gunean.

# ERAKUSKETAK

▶ **Eskulan erakusketa** bihar, zapatua, ekainak 24, goizez San Martin plazan eta Simon Arrietan, Bedelkarrek antolatuta. Jarduneko Trikiti Eskolakoek eta Musika Eskolakoek alaituko dute giroa. 15.000 pezetako 15 erosketa bono zozketatuko dira.

▶ **Simon Arrieta** zeramika tailerraren erakusketa uztailaren 2ra arte Kultur Etxean.

▶ **Anton Arrillaga**ren "Antxintxikalariak, zezenak eta toreadoreak" margo erakusketa Arrasateko Toki-Eder kafetegian (Bañez doktorea 11), ekainaren bukaerara arte.

KONTZERTUA

## *Demons & Wizards*

- Domekan, 21:30etan, Jam aretoan
- Sarrera: 3.000 pta. aurrrez.

Domeka gauean Demons & Wizards eta Dark Moor talde heavyek joko dute Jam aretoan. Hansi Kürsch eta Jon Schafferek osatzen dute Demons & Wizards taldea, eta joan zen urteko abuztuan izen bereko diskoa kaleratu zuten. Biek ere aspalditik ezagutzen dute elkar, eta betitik izan dute elkarrekin lan egiteko gogoa. Lehen aipatutako diskoa Floridako Morrisound estudioetan grabatu zuten, Jim Morris ekoizlearen laguntzarekin. Mark Prater bateriak (Iced Earth) ere hartu zuen parte grabazioan. Musika kritikak harrera ona eskaini zion diskoari. Aurretik, Blind Guardian taldeko liderra izan genuen Hansi Kürsch. Ordurarte baxua jotzera mugatzen zen, baina oraingoan bere ahotsa jarri die Kürschek diskoko abestiei. Jon Schafferi dagokionez, heavyzaleen artean aski ezaguna da, izan ere, urtetan Iced Earth taldeko konpositorea eta gitarra jolea izan dugu.

Hansi Kürsch taldekidearen hitzetan, "diskoko abestiak Blind Guardianenak baino sinpleagoak eta oinarrizkoagoak dira. Instrumento bakoitza aparte entzuteko aukera dago, eta konposatzerakoan ikutu metalikoagoa eta gogorragoa eman nahi izan diegu abestiei". Diskoan 12 abesti biltzen dira, tartean "Heaven denies", "Path of glory", "The whistler" edo "My last sunrise". Aurtengo udan mundu zabaleko jaialdietan jotzeko proposamenak jaso ditu Demons & Wizards taldeak. Domekan, Jam aretora heavyzale asko etorriko direla espero dute antolatzaileek, taldeak jarraitzaile ugari ditu eta. Zuzenean berebiziko indarra erakusten du taldeak. Domekako kontzertuko talde teloneroa Dark Moor izango da.



Demons & Wizards taldearen azken diskoaren azala.

# LEHIAKETAK

▶ **Arrasateko Komiki ez Sexisten III. Lehiaketa**. Lanak 17x24 cm.ko edo proportzio bereko formato bertikalean aurkeztuko dira. Testuak euskaraz zein gazteleraz aurkez daitezke. Irabazleak 90.000 pezetako saria eskuratuko du. Lanak aurkezteko epea uztailaren 21ean bukatuko da. Argibideak: 943 79 09 00.

▶ **VI. Baleike Komiki Lehiaketa.** Lehiaketan 14 urtetik gorakoek har dezakete parte. Gaia librea da, eta neurri eta orrialde-kopuruari dagokionez, A-4 neurriko 2 orrialde edota A-3ko orrialde bakarrekoak izango dira lanak. Lanak uztailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko dira. Irabazleak 50.000 pezeta jasoko du, eta 30.000 pezetako bigarren sari bat egongo da. Argibideak 943 86 10 56 zenbakian.

# IKASTAROAK

▶ **Audio** oinarrizko ikastaroa emango da Bergarako Kultur

**Ardo dastaketa**
**ikastaroa**
**Ardoa eta bere inguruko gai guztiei buruzko ikastaroa**
**Irakaslea** Mikel Garaizabal, enologoa eta sumillerra
**Egunak** Ekainaren 27a, 28a eta 29a eta uztailaren 4a eta 5a
**Ordutegia** 19:00etatik 21:00etara.
**Lekua** Kartzela Zaharra
**Prezioa** 5.500 pta. bazkideek; 6.000 besteek.
**Gehienezko kopurua** 24 lagun
Jardun
APRA ARABA ERRIOXAKO ARDOA
**Informazioa eta izena ematea: 943 76 36 61 / 08 19**

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 943 76 71 19
**San Miguel garagardo festa zapatu gauean**
*Bat edan eta bestea musu-truk*

Etxean uztailean, goizez. Plaza mugatuak. Argibideak 943 77 91 58 eta 943 75 20 51 zenbakietan.

▶ **Lanbide Hastapena** programan izena emateko epea datorren ekainaren 30era arte dago zabalik. 16-18 urte bitarteko adina izatea eta eskolaz kanpo egotea beharrezkoa da. Interesatuek Udaleko Enplegu Zerbitzura jo dezakete.

# DEIAK

▶ **Gazte lokala**ren aldeko mugimenduak ostiralero, 19:15ean, Kartzela Zaharrean egiten den bileran parte hartzeko dei egiten die herriko gazteei.

▶ **Oñatiko Natur Eskola**. Ornitologia irteera martitzenean, ekainaren 27an, eta espeleologia irteera hilaren 29an. Bertan parte hartzeko interesatuek 943 71 64 04 telefonora deitu dezakete informazio eske.

▶ **Aizkorriko lagunen eguna** uztailaren 2an, Zegaman. Goizeko 7:00etan Aizkorrira irteera egingo da Udaletxe aurreko plazatik, eta 15:00etan, anaiarteko bazkaria Kiroldegian. Argibideak eta izen-ematea: 943 80 13 51.

# OHARRAK

▶ **Musika Eskola**. Hurrengo ikasturterako matrikula epea zabalik izango da ekainaren bukaerara arte.

# JAIAK

▶ **San Juan jaiak**. Bihar, zapatua, 12:00etan, meza San Juan auzoko ermitan, San Joxepeko abesbatzak lagunduta. Ondoren, Gezalaga anai-arreba trikitilarien eta Aranzadiko Moises Azpiazu dantza taldearen saioa.

▶ **Otaba jaiak Elosun**: bihar, zapatua, 18:15ean, txikiteoa soinu-joleekin, eta 21:00etan bertso afaria. Domekan, 11:30ean, soinu-joleak, eta12:00etan, Meza Nagusia; 12:30ean, pilota partiduak Frontoian; 16:00etan, umeentzako haizezko gazteluak, eta 17:00etan, herriko kirolen jaialdia. Astelehenean, hilak 26, 12:00etan, hildakoen oroimenezko meza; 13:00ean salda eta txorizoa; 15:00etan, auzo bazkaria Elurmendi elkartean; 17:00etan, umeentzako jolasak; 21:00etan, auzo afaria, eta gauerdian, zozketa.

# KINTADAK

▶ **1971**n jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoen afaria uztailaren 15ean Txuringon. Izen-ematea (2.500 pezeta) uztailaren 6ra arte zabalik Kutxako 21010070820123094443 kontu korronte zenbakian. Afari egunean, 20:00etan, Pol-Polen elkartuko dira.

# ZINEA

**KARTELDEGIA**

**BERGARA. Novedades**
**Lista de espera**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

**ARRASATE. Alai zinema**
**Las virgenes suicidas**
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
**Lista de espera**
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

**EIBAR. Unzaga**
**Stuart little**
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**
**Golpe a traicion**
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

**ELORRIO. Arriola**
**Al limite**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

**OÑATI. Santana**
**28 dias**
Eguakitza: 22:30.
Zapatuan: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena, ikuslearen eguna: 22:30.

**AZKOITIA. Baztartxo**
**Gigolo**
Eguakitza: 22:00.
Zapatuan: 22:00
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena, ikuslearen eguna: 20:00.




**LISTA DE ESPERA**
**Zuzendaria:** Juan Carlos Tabio.
**Aktoreak:** Vladimir Cruz, Tahimi Alvariño, Jorge Perugorria.
*=13 urte*
Tomas Gutierrez Alearekin batera "Fresa y chocolate" eta "Guantanamera" filmeak zuzendu zituen Juan Carlos Tabio kubatarraren filmea, izenburu bereko Arturo Arango idazlearen ipuin batean oinarrituta. Kubako herri txiki bateko autobus geltokitik igarotzen diren autobusetan ez dago bertako bidaiarientzat lekurik, eta itxaropen bakarra bertan dagoen ibilgailua konpontzea izango da...

**LAS VIRGENES SUICIDAS**
**Zuzendaria:** Sofia Coppola.
**Aktoreak:** James Woods, Kathleen Turner. *=13 urte*
Francis Ford Coppolaren alabak zuzendutako film honetan James Woods eta Kathleen Turner aktore ezagunak ditugu erreparto buru. 1970.eko hamarkadan mutiko talde batek bost ahizpekin duen harremana kontatzen da. Harreman honek beren bizitza aldatuko du betiko...

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin
*Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!*
LARRAÑAGA AUTOESKOLA
Tf. 943 76 16 63

**Elur Txiki izeneko elkartea sortu berri dute Elosun. Auzotarrak kezkatuta daude bertako giroak behera egin duelako. Berau biziberritzeko sortu da elkartea eta Igor Oruesagastik eman digu horren berri.**

IGOR ORUESAGASTI

Elosuko Elur Txiki elkarteko sortzaileetakoa

# "Elosu auzoari bizitza handiagoa ematea du helburu Elur Txikik"



Oruesagastik Elosuko beste lau auzotarrekin batera sortu du elkartea.

**G.** Orain urte batzuk gaztetxe gisako bat sortu zenuten.

**E.** Gaztetxea orain dela hamaika urte sortu zen gazteendako toki bat da. Ez du inongo zerikusirik Bergarako gaztetxea zenarekin. Kontua da, auzoko eta kanpotik etortzen diren neska-mutikoek eguraldi ona egiten duenean, frontoian edo zelaian jolas dezaketela. Baina neguan, Elosun ez dago tokirik egoteko. Horrela, hamasei urtetik beherako neska-mutikoek ez zeukaten non egon negu partean.

Gauzak horrela, gaztetxo horiek egoteko egoitza bat atontzea pentsatu zen. Eta, bide batez, baita Jai batzordeak bilerak egiteko batzar-gela bat ere.

Esan bezala, orain dela hamaika urte sortu zen gaztetxea. Orduan, Jose Luis Elkoro zegoen Bergaran alkate, baina inauguratu zenean Victoriano Gallastegi zegoen.

Gaztetxeak futbolina, ping-ponga, liburuak, telebista, hainbat mahai eta jolas ditu. Esan bezala, helburua auzoko umeek neguan egoteko toki bat edukitzea izan zen, eta asteburuetan kanpotik zetozenak ere bai. Elur Txiki izena eman genion.

**G.** Eta elkartea sortzeko ideia nondik dator?

**E.** Auzoan ekintzak antolatzeaz Jai batzordea arduratzen da. Jaiez gain, auzokoendako sagardotegira irteera, Erregeen kabalgata eta horrelako beste ekintza batzuk ere antolatzen ditugu. Elur txiki bera ere Jai batzordeko kideok atera genuen aurrera. Baina orain, Jai batzordea soilik jaiak antolatzeaz ardura dadin nahi izan dugu. Gainerako ekitaldiak antolatzeko elkarte bat sortu berri dugu, gaztetxearen izen bera daramana, Elur Txiki hain zuzen.

***"Bertako gazteek alde ez egiteko baliabideak jarri nahi ditugu, eta kanpokoentzat ere erakargarriago bihurtu Elosu auzoa"***

**G.** Zein helburu du elkarteak?

**E.** Gaztetxeak behera egin du nabarmen. Gero eta ume gutxiago dago Elosun eta gehienak kanpora joaten dira. Hori dela eta, auzoa beherantz doa. Eta gure helburua auzoari bizitasun apur bat ematea da, auzotarrek kanpora alde egin beharrean, auzoan gehiago egon daitezen. Elkarte bat sortzeak dituen abantailak agerikoak dira, hau da, Udalak aurrekontuan elkarteendako duen partidan sartzeko aukera emango digu, eta ondorioz, auzotarrei eskaintza zabalagoa eta hobea egiteko aukera ere bai. Dagoeneko sortu dugu elkartea; Diputazioan zigilua jartzea baino ez zaigu falta.

**G.** Zein asmo ditu elkarteak aurrera begira?

**E.** Azkeneko zortzi urteetan apenas egin den ezer auzoan; frontoia bera ere, ez da konpondu. Honela, eta helburua beti izanik gazte jendeak auzotik alde ez egitea eta kanpoko jende gehiago bertara hurbiltzea, hainbat berrikuntza egin nahiko genituzke auzoan. Baita aisialdirako eskaintza egin ere.

Oraindik ezin dugu asmoen berri garbiegi eman, elkartea sortu berria baita. Baina izan, asko ditugu. Udalarekin ere bagabiltza hartuemanetan, eta oso erantzun ona jaso dugu.

**G.** Parrokoak ere asko lagundu ei dizue.

**E.** Bai. Gaztetxea antolatzen aritu ginenean, orain hamaika urte, Xabier Zubizarreta zegoen apaiz. Beragatik izan ez balitz, agian egin ere ez zen egingo. Gaur egun, Xabier Azkoitia dago apaiz, eta honek ere asko lagundu digu elkartea sortzen; elkartea sortzeko jarraitu beharreko urratsetan, esaterako.

# Neberetako elurzuloa konpondu eta bisitak egiteko atonduko dute

## Kapirixoren ekimena da eta Diputazioak eta Udalak proiektua onartu egin dute

**Proiektuaren arabera, elurzuloa berreskuratzeaz gain, leku bisitatua izan dadin ingurua egokituko da.**

Elurzuloa, Gorlarako bidean dago, izen bera duen azkeneko errebuelta baino 150 metro lehenenago, eskuin aldean. Gaur egun duen egoera oso kaskarra da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalak baiezkoa eman diote Kapirixok aurkeztutako proiektuari.

Proiektuan, elurzuloa berreskuratzeaz gain, berau inguratzen duen zonaldea ere txukuntzeko asmoa jasotzen da, jendeak bisitatzeko moduan jarriz.

### LEKU IKUSGARRIA

Bisitetarako leku aproposa bihurtzeko asmoz, arestian aipatutako errebueltan aparkalekua egokituko da, goiko argazkiko jarlekua dagoen gunean. Bestalde, jarlekuaren ostetik, bide zidor bat egingo da, beheranzko bidean elurzuloraino. Horrez gain, eta elurzuloa errepide ondoan dagoela kontuan izanda, errepidera inor eror ez dadin, hesi bat jarriko da.



Kurba barruko gunean aparkalekua egingo da.







Goian, elurzuloa gaur egun. Ondoan, lehen ematen zitzaion erabileraren irudia.

Elurzuloari dagokionez, bost metroko sakonera du. Kapirixoren proiektuaren arabera, barrua garbitu, eta erorita dituen zatiak konpondu egingo dira. Horrez gain, ikustera hurbiltzen direnen segurtasuna kontuan izanda, inguruan hesi bat jarriko zaio, eta estali egingo da, kristalez, seguruenik, barrualdea ikusteko.

Elurzuloa inguratzen duen eremuari dagokionez, dauden pinuak bota eta pagoak landatuko dira.

Bi elurzulo daude Bergaran: Neberetakoa bata, eta Agarreburuko lepoan bestea. Neberetakoa berrizteko erabakia, ikustera joateko aukera ezin hobea eskaitzen duelako da, dagoen tokian kokatua egonda.

## Termometroa 35 gradutan

**Bero izugarria** izan dugu egunotan. Joan zen eguenean hasi zen termometroa gora egiten, eta aste osoan zehar izugarrizko beroa izan dugu. Egunik beroenak eguakitza 16, eta zapatua 17 izan ziren: 35 gradu egin zituen. Tenporekin bat egin zuten egun hauek, beraz, beroa ziurtatuta daukagu. Termometroak, gainera, denbora gutxian egin du gora: Pentekoste jaietan, astebete lehenago, batez beste 18 gradu izan genituen. Tenperaturaren gorakadak, igerilekuen irekierarekin bat egin du, eta egunotan jende ugari joan da bertara.
Bestetik, herriko farmazietan esandakoarean arabera, eguzkiak erretako jende nahikotxo hurbildu da bertara erremedio bila.



**Elur Txiki izeneko elkartea sortu berri dute Elosun. Auzotarrak kezkatuta daude bertako giroak behera egin duelako. Berau biziberritzeko sortu da elkartea eta Igor Oruesagastik eman digu horren berri.**

IGOR ORUESAGASTI

Elosuko Elur Txiki elkarteko sortzaileetakoa

# *"Elosu auzoari bizitza handiagoa ematea du helburu Elur Txikik"*

**G.** Orain urte batzuk gaztetxe gisako bat sortu zenuten.

**E.** Gaztetxea orain dela hamaika urte sortu zen gazteendako toki bat da. Ez du inongo zerikusirik Bergarako gaztetxea zenarekin. Kontua da, auzoko eta kanpotik etortzen diren neska-mutikoek eguraldi ona egiten duenean, frontoian edo zelaian jolas dezaketela. Baina neguan, Elosun ez dago tokirik egoteko. Horrela, hamasei urtetik beherako neska-mutikoek ez zeukaten non egon negu partean.

Gauzak horrela, gaztetxo horiek egoteko egoitza bat atontzea pentsatu zen. Eta, bide batez, baita Jai batzordeak bilerak egiteko batzar-gela bat ere.

Esan bezala, orain dela hamaika urte sortu zen gaztetxea. Orduan, Jose Luis Elkoro zegoen Bergaran alkate, baina inauguratu zenean Victoriano Gallastegi zegoen.

Gaztetxeak futbolina, ping-ponga, liburuak, telebista, hainbat mahai eta jolas ditu. Esan bezala, helburua auzoko umeek neguan egoteko toki bat edukitzea izan zen, eta asteburuetan kanpotik zetozenak ere bai. Elur Txiki izena eman genion.

**G.** Eta elkartea sortzeko ideia nondik dator?

**E.** Auzoan ekintzak antolatzeaz Jai batzordea arduratzen da. Jaiez gain, auzokoendako sagardotegira irteera, Erregeen kabalgata eta horrelako beste ekintza batzuk ere antolatzen ditugu. Elur txiki bera ere Jai batzordeko kideok atera genuen aurrera. Baina orain, Jai batzordea soilik jaiak antolatzeaz ardura dadin nahi izan dugu. Gainerako ekitaldiak antolatzeko elkarte bat sortu berri dugu, gaztetxearen izen bera daramana, Elur Txiki hain zuzen.



Oruesagastik Elosuko beste lau auzotarrekin batera sortu du elkartea.

***"Bertako gazteek alde ez egiteko baliabideak jarri nahi ditugu, eta kanpokoentzat ere erakargarriago bihurtu Elosu auzoa"***

**G.** Zein helburu du elkarteak?

**E.** Gaztetxeak behera egin du nabarmen. Gero eta ume gutxiago dago Elosun eta gehienak kanpora joaten dira. Hori dela eta, auzoa beherantz doa. Eta gure helburua auzoari bizitasun apur bat ematea da, auzotarrek kanpora alde egin beharrean, auzoan gehiago egon daitezen. Elkarte bat sortzeak dituen abantailak agerikoak dira, hau da, Udalak aurrekontuan elkarteendako duen partidan sartzeko aukera emango digu, eta ondorioz, auzotarrei eskaintza zabalagoa eta hobea egiteko aukera ere bai. Dagoeneko sortu dugu elkartea; Diputazioan zigilua jartzea baino ez zaigu falta.

**G.** Zein asmo ditu elkarteak aurrera begira?

**E.** Azkeneko zortzi urteetan apenas egin den ezer auzoan; frontoia bera ere, ez da konpondu. Honela, eta helburua beti izanik gazte jendeak auzotik alde ez egitea eta kanpoko jende gehiago bertara hurbiltzea, hainbat berrikuntza egin nahiko genituzke auzoan. Baita aisialdirako eskaintza egin ere.

Oraindik ezin dugu asmoen berri garbiegi eman, elkartea sortu berria baita. Baina izan, asko ditugu. Udalarekin ere bagabiltza hartuemanetan, eta oso erantzun ona jaso dugu.

**G.** Parrokoak ere asko lagundu ei dizue.

**E.** Bai. Gaztetxea antolatzen aritu ginenean, orain hamaika urte, Xabier Zubizarreta zegoen apaiz. Beragatik izan ez balitz, agian egin ere ez zen egingo. Gaur egun, Xabier Azkoitia dago apaiz, eta honek ere asko lagundu digu elkartea sortzen; elkartea sortzeko jarraitu beharreko urratsetan, esaterako.

# Neberetako elurzuloa konpondu eta bisitak egiteko atonduko dute

## Kapirixoren ekimena da eta Diputazioak eta Udalak proiektua onartu egin dute

**Proiektuaren arabera, elurzuloa berreskuratzeaz gain, leku bisitatua izan dadin ingurua egokituko da.**

Elurzuloa, Gorlarako bidean dago, izen bera duen azkeneko errebuelta baino 150 metro lehenenago, eskuin aldean. Gaur egun duen egoera oso kaskarra da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalak baiezkoa eman diote Kapirixok aurkeztutako proiektuari.

Proiektuan, elurzuloa berreskuratzeaz gain, berau inguratzen duen zonaldea ere txukuntzeko asmoa jasotzen da, jendeak bisitatzeko moduan jarriz.

### LEKU IKUSGARRIA

Bisitetarako leku aproposa bihurtzeko asmoz, arestian aipatutako errebueltan aparkalekua egokituko da, goiko argazkiko jarlekua dagoen gunean. Bestalde, jarlekuaren ostetik, bide zidor bat egingo da, beheranzko bidean elurzuloraino. Horrez gain, eta elurzuloa errepide ondoan dagoela kontuan izanda, errepidera inor eror ez dadin, hesi bat jarriko da.

Elurzuloari dagokionez, bost metroko sakonera du. Kapirixoren proiektuaren arabera, barrua garbitu, eta erorita dituen zatiak konpondu egingo dira. Horrez gain, ikustera hurbiltzen direnen segurtasuna kontuan izanda, inguruan hesi bat jarriko zaio, eta estali egingo da, kristalez, seguruenik, barrualdea ikusteko.

Elurzuloa inguratzen duen eremuari dagokionez, dauden pinuak bota eta pagoak landatuko dira.

Bi elurzulo daude Bergaran: Neberetakoa bata, eta Agarreburuko lepoan bestea. Neberetakoa berrizteko erabakia, ikustera joateko aukera ezin hobea eskaitzen duelako da, dagoen tokian kokatua egonda.



Kurba barruko gunean aparkalekua egingo da.



AMAIA OLAÑETA



AMAIA ARRIARAN

Goian, elurzuloa gaur egun. Ondoan, lehen ematen zitzaion erabileraren irudia.

## Termometroa 35 gradutan

**Bero izugarria** izan dugu egunotan. Joan zen eguenean hasi zen termometroa gora egiten, eta aste osoan zehar izugarrizko beroa izan dugu. Egunik beroenak eguakitza 16, eta zapatua 17 izan ziren: 35 gradu egin zituen. Tenporekin bat egin zuten egun hauek, beraz, beroa ziurtatuta daukagu. Termometroak, gainera, denbora gutxian egin du gora: Pentekoste jaietan, astebete lehenago, batez beste 18 gradu izan genituen. Tenperaturaren gorakadak, igerilekuen irekierarekin bat egin du, eta egunotan jende ugari joan da bertara.

Bestetik, herriko farmazietan esandakoarean arabera, eguzkiak erretako jende nahikotxo hurbildu da bertara erremedio bila.





Bergarako herritarren kontzientziazio maila altua da odol-emate indizea hain goian egotearen arrazoia.

# Bergarak odol emate indize handienetakoa du Gipuzkoan

**Bergara**, mila biztanleko odol-emate indize handienetakoa duen herria da Gipuzkoan. 1999. urteko datuen arabera, 1.339 odol-emate izan ziren Bergaran. Biztanleen errolda 15.141 pertsonakoa zela kontuan hartuta, donazio indizea 88,4koa izan zen.

10.500tik gora biztanle dituzten herrien artean, indize handiena du. Irun edo Eibar bezalako herriekin alderatuz, esaterako, indizea nabarmen handiagoa da: Eibarren kasuan, 29.747 biztanlerekin, 1.047 odol emate izan ziren, eta indizea 35,2koa izan zen. Iruni dagokionez, 55.196 biztanleko errolda izanik, 1.810 emate izan ziren, eta indizea 32,8koa izan zen.

### KONTZIENTZIAZIO MAILA ALTUA

Bergarako odol emaile elkarteko arduradun Fernando Idigorasen arabera, Bergaran kontzientziazio maila altua dago. Datuak positiboak izatea, lan ildoari ere badagokio: herriko hainbat dendatako ateetan egiten den propagandak, prentsan agertzen diren deiak zein odol emaile bakoitzaren egutegi partikularrak laguntza handia dira, odol emaileak informatuta izateko eta emaile berriak lortzeko.

### GAZTEAK HELBURU

Emaile berriei dagokienez, gazterian dago erronka. Gero eta baldintza gehiago jartzen baititu sanitateak odol emaile izateko orduan.

Horregatik, irailetik aurrera, ikastetxeetara zuzendutako kanpaina bati ekingo diote. Bertan, odol ematea zer den eta zein helbururekin egiten den azaltzeko hainbat hitzaldi eta bideo emanaldi egingo dira beste gauza batzuen artean, bide batez, gazteengan odola emateko kontzientzia pizteko asmoz.

Bergaran 1.500 emaile daude, eta 1999. urtean zehar 58 berri egon dira.

## Liburutegiko udako ordutegia

**Uztailaren 3tik** aurrera honako ordutegia izango du liburutegiak: goizeko 08:00etatik 13:00era, eta larunbatetan itxita egongo da. Bestalde, abuztuaren 4tik 28ra itxita egongo da oporrak direla eta.

## Turismo Bulegoa zabalik dagoeneko

**Joan zen** zapatuan, ekainak 17, ireki zen Turismo Bulegoa. Irailaren 17ra arte egongo da irekita, eta ordutegia honakoa izango da: astegunetan, goizeko 10:30etik 14:00etara, eta arratsaldez, 16:30etik 19:30era. Asteburuetan, 11:30etik 14:30era.

## Jarduneko batzar orokorra eguenean

**Datorren** eguenean, ekainak 29, Jardun elkartearen batzar orokorra izango da arratsaldeko 19:00etan Kartzela Zaharrean. Jardunek bazkide guztiei bertara joateko gonbidapena luzatu nahi die.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

BANKINTER
Zure hipoteka merkatuko preziorik onenean
%3,25* etik aurrera
*Irekiera komisioa: %1
*Lehen 6 hilabeteak
*35 urte bitarteraino

Zuri Beltz margoak
Barnealde eta kanpoaldeen erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak
943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

# Udalak hautsi egin du kontratua GMSG garbiketa enpresarekin lan eskasagatik

**Bergarako** Udalak deuseztatu egin du GMSG enpresa garbitzailearekin zuen kontratua. Arrazoia, Udalean jaso diren kexak enpresak ez dituelako kaleak ondo garbitzen.

Iazko martxoan hasi zen GMSG enpresa Bergarako kaleak garbitzen. Ordutik, hainbat kexa jaso dira Udalean, itxura denez, enpresak ez baititu kaleak behar bezala garbitzen. Arrazoi horregatik, Udalak, enpresarekin hainbat bilera egin eta gero, kontratua deuseztatzea erabaki du, Juan Jose Arrieta, Gobernazioko zinegotziak azaldu bezala.

Aurreko legegintzaldian irabazi zuen GMSG enpresak kaleak garbitzeko lehiaketa publikoa. 54 milioi pezetako eskaintza egin zuen. Ez zen ez merkeena ezta garestiena izan, eta zortzi urteko iraupena izan beharko zuen. Aurreko legegintzaldian, dagoeneko, eskaintzen zuen zerbitzuagatik hainbat kexa jaso ziren. Legegintzaldi berrian kexek jarraitu egin dute.

Horri, beste arazo bat gehitu zaio. Pentekoste jaietako domekan, enpresako langileek uko egin zioten lanera joateari zuzendaritzari presioa egiteko. Izan ere, arazoak dituzte enpresarekin.

Horrela, eta jaietan pilatzen den zabor kopurua kontuan izanda, Bergarako Udalak irtenbidea aurkitu nahiean Cespa enpresa garbitzailera jo zuen. Cespa enpresak, gaur egun, Arrasateko kaleak garbitzen ditu.



Oraindik zazpi urterako kontratua zuen GMSG enpresak Udalarekin.

Kontratua deuseztatuta, GMSGk ekainaren amaiera arte jarraituko du lanean. Ondoren, berriz aterako da lehiaketa. Udala aztertzen ari da Cespa, Garbile edo beste enpresaren bat izango den garbiketaz arduratuko dena zerbitzua lehiaketara agertu arte, baina litekeena da Cespa izatea jaietan eskainitako zerbitzu onagatik.



## 15 hektarea mendi erreta Elorregin

**Astelehen goizaldean**, sute batek 15 hektarea mendi eta pinudi erre zituen San Prudentzio auzoan. Sutea Elorregiko hilerri ondoko pinudi batean hasi zen. Antza denez, kable batek eragin zuen sua, eta egun hartan zebilen haize indartsuak berehala zabaldu zuen. Gipuzkoako Foru Aldundiko mendi zuzendaritzako itzaltze taldeek 18:30 aldera lortu zuten sua kontrolatzea. Zubillagako suhiltzaileak ere bertan izan ziren, eta Zablado baserriko bizilagunak, badaezpada, etxetik atera behar izan zituzten. Baserriak, dena den, ez zuen inongo kalterik izan. Sutea errepidera asko hurbildu zenez, trafikoan arazoak eragin zituen.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK — PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA — HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA — IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

# Berrigara

415 zenbakia.
2000ko ekainaren 23a.

**Irizar jauregia. Barrenkalea 33.**
**20570 Bergara.**
**Telefonoa: 943 76 03 97**
**Faxa: 943 76 29 77**
**Posta elektronikoa:**
**berrigara@topagunea.com**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.
**Erredakzioa:** Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.
**Testuen zuzenketak:** Alex Labaien, Maripi Laskurain, Estepan Plazaola.
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
**Komikiak:** Unai Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate, Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** **Gipuzkoako Foru Aldundia** **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**


## gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### HAIZEAK BOTA EZ ZITUEN TXIMINIAK

Ondare Industriala geroz eta oihartzun handiagoa hartzen doa gure gizartean, baina oraindik ere ondarearen anai txikiaren tokia baino ez du.

Bost urtetik hona Bergarak zuen ondarea, batez ere industriala galtzen doa. Begira, bestela, zer gertatu den Arregi "Teilerixiarekin"; dimentsio hauetan Gipuzkoan geratzen zen bakarra zen, baina Industrialdea egin behar zelako, eta ondare guztia salbatu ezin denez, isildu eta egun ez dago hura izan zeneko arrastorik. 1999 agurtzeko eta 2000ri agurra egiteko, Egurenen tailer mekanikoa, mende hasierako makinak zituena, lurreratu dute; asko ez badakigu ere makinak leku seguruan omen daude, eskerrak. Hamabost egun beranduago Beheko Tren Geltokia trumoi zakar batek eraman zuen, Bergarako "abenida" handi eta modernoaren izenean nortasun berezia zuen herriaren printzak ezabatuz; egun erretratu zaharrak eta hura ezagutu zutenen erreferentzia besterik ez dugu, ondorengo belaunaldiei eskaintzeko. Ez dira lau hilabete pasa eta Santa Katalina XV. Mendeko ermita, erortzen ikusi dugu. Hau gertatu eta gero, eta bere momentuan neurriak hartu ez zirelako lana gehitu eta garestitu; kasu honetan, behintzat, konponbidea bilatzeko borondatea omen dago. Eta akabatzeko Zerrajera, Bergaran Industri Ondarearen adibide ezinhobea izan dena; bere garaian Industrialdea egiteko plana martxan zegoenean Bergarako Udalari aditzera eman zitzaion zelako garrantzia zuen berreskuratzeak, dagoenekoz berregokituta dagoen pabiloia, txapa laminazioaren eraikuntza arrazionalista bere erloju eta guzti (non daude hormetatik zintzilik zeuden garai bereko farolak?) eta zeuden tximiniak. Ezagutzen ez ditugun arrazoiak edo desarrazoiak direla medio Zerrajerako tximiniak bota dituzte; badirudi mostra modura zati erridikulo bat besterik ez dutela utziko. Denbora oso laburrean munduan zehar Iraultza Industrialaren bi sinbolo enblematikoenak betirako ezabatu dituzte gure herritik, tximiniak eta trenbideak.

Kapirixo bezalako elkartearen lana ondarearen alde egitea da; baina bere lana, errealitatean, duguna eta galdu dugun ondarea ezagutaraztea baino ezin da izan. Benetan, ondarea babesteko ardura erakundeek (udalek, Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak) dute; beste inork ez du horretarako baimenik. Beraz, ondarearekin gertatzen denaren erantzukizun zuzena beraiek dute. Beraiek kalifikatzen dute, eta hala komeni denean deskalifikatu, sarritan, interes ekonomikoek eraginda. Beraz, jokatzeko modu hau dela eta, aldiko gutxi, ondare ikuspuntutik garrantzitsuak izan daitezkeen eraikuntza, leku edota eremuak desagertzen doaz. Zergatik ordaintzen ditugu gure zergak erakundeetan gero hauek ez badute betetzen behar bezala ondarearekiko duten erantzukizuna?

*Kapirixo*

### ESKERRIK ASKO GUZTIOI

Jardun elkartearen izenean, eskerrak eman nahi dizkiogu Zaiazko elektronika dendari GOITB Bergarako hainbat etxetan ikusteko egindako lanagatik. Era berean, Bergarako jaiei buruzko saio berezia aurrera ateratzeko, aurkezle lanetan jardun zuen seikoteari ere eskerrak eman nahi dizkiogu egindako lan bikainagatik. Eskerrik asko, beraz: Eider Aranzabal, Ane Miren Zabala, Oihan Vega, Igor Larrañaga, Aitzol Mujika eta Anartz Agirre.

*Jardun Elkartea*

## **tira biraka** alex ugalde



atrebentzia ezpada

## Gizonezkoak etxeko lanetan laguntzen dabe? Etxekoandrak soldatarik kobratu biharko leukie?



**Maria Belen Navas**

Senarrak asko laguntzen dau, sukaldian batez be. Soldatia kobratziak asko lagunduko lotseke andrei, baiña ez dakit zenbatekua.



**Itziar Idigoras**

Senarrak ez dau etxian apenas laguntzen. Eta etxekoandrak soldatia kobratziana, ez dakit. Kobrau ezkero lan gehixago egingo leukie.



**Lauri Askargorta**

Bakarrik bizi naiz eta egin bihar. Dana dala, gurasuekin bizi nintzanian neuria jasotzen neban. Soldatia izan biharko leukie.



**Ramon Azpeitia**

Ahal dotena laguntzen dot: erosketak egin, aspiradoria pasau... horrelakuak. Euki biharko leukie soldatia, baña ez dakit zenbatekua.



**Petri Rodriguez**

Senarrak asko laguntzen dost, bixok kanpuan egitten dogu lan eta. Etxekoandrek soldatia merezi dabe, baiña ez dakit zenbatekua.



**Axier Arbulu**

Laguntzen dot. Fregaua egiñ, eskobia pasau, mahaixa ipini... holakuak. Ez dot uste etxekoandrei soldatia pagau bihar jakuenik.

bai, esan!

*Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.*

### ISTRIPUA ARRASATETIK ARETXABALETA BIDEAN

**Luis Markiegi** bergararrak istripua izan zuen joan zen ekainaren 15ean, Arrasatetik Aretxabaletako bidean, bariantean, "Talleres Meca" kontzesionarioaren parean. Bere kamionetarekin zihoala, antza denez, aurretik zihoan kamioi bati errepuestoko gurpila jausi eta gurpilak kalte handiak eragin zizkion Luis Markiegiren ibilgailuari. Markiegik azaldu digunez, kamioiko gidariak hanka egin zuen. Hori dela eta, istripua ikusi zutenen laguntza eskatu nahi du. Beraz, norbaitek matrikula edo bestelako informazioa izango balu, berarekin harremanetan jartzea eskertuko luke. Interesatuek 943 76 32 04 edo 943 76 43 93 telefonoetara deitu dezakete laguntza eskaintzeko.


POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78



✗ Ezkontzak
✗ Bataioak
✗ Jaunartzeak
✗ Enpresa bazkariak eta iagunartekoak
✗ 150 lagunendako jangela



PARKINA ETA TERRAZA
BASTER-ALDE
JATETXEA
Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tf.: 943 79 24 58



Ur~bide
ITURGINTZA
Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

adituen esanetan

# Hemokromatosia



PEDRO OTAZUA

*Digestio aparatuko medikua*

Hemokromatosi deituriko gaixotasuna genetikoa eta heredagarria da, burdina gehiegi dugunean ematen da. Gertatzen da hesteak behar duen baino burdin kantitate gehiago zurgatzen duela. Ondorioz, burdina hori gibelean, pankreasean eta bihotzean geratuz doa, eta zirrosia, diabetesa edo miokardiopatia (bihotza ez da behar bezala uzkurtzen) arazoak eragin ditzake. Inzidentziari dagokionez, 300 biztanletik batek duela hemokromatosia kalkulatzen da. Gizon zein emakumeei berdin eragiten die, baina emakumeetan, hilerokoa izatean, gutxiagotan agertzen da, odola galtzen dutelako, hain zuzen ere.

Esan bezala, sortzetiko gaixotasuna da hemokromatosia, eta jaiotzatik burdina lehen aipatutako tokietan geratzen hasten da. Gaixotasuna 30 urte inguruan agertzen da. Beraz, diagnostiko goiztiarra egitea oso garrantzitsua da hemokromatosiaren kasuan. Odol analisiaren bitartez jakin dezakegu gaixotasuna dugun ala ez, eta zenbait kasutan gibelaren biopsia egitea komeni izaten da emaitzak konfirmatzeko. Erresonantzia magnetikoarekin ere gibeleko burdin kantitatea detektatu daiteke. Enpresen ohiko kontroletan, transferrina asetasuna deituriko proba egingo balitz, nahikoa litzateke diagnostiko goiztiarra egin ahal izateko, batez ere 20 urtetik 30 urtera bitarteko gazteen artean. Horrela, zirrosia agertu baino lehenago gaixotasuna detektatzea lortuko genuke (zirrosia bestela sendaezina da). Bestalde, tratamendua odola kentzean oinarritzen da. Batez beste, urtebetez, litro eta erdi odol kentzen zaie astero hemokromatosiak jotakoei. Horrez gain, burdina duten elikagaiak saihestu behar dituzte. Era berean, tea hartzea gomendatzen dute, teak burdina eliminatzen duelako.

*"Hesteak behar duen baino burdin kantitate gehiago zurgatzen du eta burdina hori gibelean, pankreasean eta bihotzean geratzen joaten da"*



Burdina duten elikagaiak saihestu behar dituzte hemokromatosiak jotakoek. ARTXIBOA

bergarako errotak



## LUIS BOLU edo PARAOLA BOLU

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 1929 urtea:

*"Bartolome Askasibar Bergarako bizilagunak adierazten du Ubera errekako urak erabiltzen dituela Bergarako lurretan, Ubera auzoan, dagoen Paraola izeneko errotan indarra sortzeko, eta erabilera hori Herri-Uren Aprobetxamenduen Erregistroan inskribatzea nahi lukeela. Darabilen ur kantitatea, bataz beste, 100 litro/segundokoa da eta ur-jauzia 4,50 metrokoa."*

Eta hau guztia jendeari jakinarazten zaio...

Antzeko eskaria egin zuten 1956an; orduko hartan eskegilea Inazio Askasibar izan zen.

Irina egiteko herri-errota moduan 1934an eman zitzaion alta Bartolome Askasibar Garaizabalen izenean. 1961etik 1963ra?????

Luis-Boluko azkeneko errotaria Inazio Askasibar izan zen eta 1979an hil zen 76 urterekin.

Elgeta-errekako urak erabiltzen zituen eta bere eskumatara zegoen.

Auzokoek esan zigutenez, bi harri pare zituen, burdinazko bi turtukik eragindakoak, eta jeneralean artoa eta garia ehotzen ziren.

Harriak pikatzea ere Askasibarrek berak egiten zuen eta ehotakoaren %10eko laka ematen zitzaion. Azkeneko ehoaldia 1978an egin zuen.

Kokapena: Uberatik Bergararako bidean, auzunetik kilometro batera, errepidearen eskumako aldean.

Antxon Agirre Sorondo



## Josefa Egidazuk 100 urte

**Josefa Egidazu Arregik 100 urte** bete zituen zapatuan, **ekainaren 17an**. Besteak beste, **Victoriano Gallastegi** alkatea, **Fernando Etxeberria** Diputazioko ordezkaria eta San Joxepe elkarteko **Gori Larrañaga eta Lorentzo Laskurainen** zorion agurrak eta plaka oroigarriak jaso zituen. Arrasateko **Arruena baserrikoa** jaiotzez, 16 urterekin Bergarara etorri zen lanera, San Antonioko Manso tabernara. Gure herrian **Victoriano Telleriarterekin** ezkondu zen, eta hiru alaba izan zituzten. Zubietan bizi da, eta zapatuan, bere eguna ospatzeko, senitartekoekin eta lagunekin bildu zen. Osasunez ondo dago, nahiz eta hanketan arazoak izan. Aste honetan ETB-1eko **"Bertatik bertara"** saioan ere ikusteko aukera izan dugu. Zorionak!!



## Ingalaterran praktiketan

Miguel Altuna ikastetxeko **Jon Gurutz Alberdi eta Aitzol Mendizabal** ikasleak **10 astez** Londresen izan dira, erlojuetako makineria egiten duen F.A. Gluck enpresan lanean. Biek ere produkzio mekanikoko moduloa egin dute Miguel Altunan, eta ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan dute. Horrez gain, ingelesa ikasi eta turismo pixkat egiteko aprobetxatu dute. Eta, nola ez, enpresan erloju bana eman zieten opari gisa. Britainiarren puntualitatea ez galtzeko...

## Errekortadoreen txapelketa

**Francisco Javier Ezeiza eta Zigor Martinez** tolosarrek osatutako bikoteak irabazi zuen zapatuan jokatutako Errekortadoreen Euskadiko Txapelketa. **Beldarrain** anaia naparrak bigarren geratu ziren, eta **David Maestre** bergararrak errekorte onenaren saria jaso zuen. **Unai Arana-Mikel Uribesalgo eta Iker Agirre-Maestre** bergarar bikoteak ondo aritu ziren, eta zezen-plazan bildutakoek (400 lagun inguru) primeran pasatu zuten ikuskizunarekin. Datorren urtean ere Zezenzaleak taldeak txapelketaren antolakuntzari eutsi nahi dio.



DV



## Kurtso bukaerako jaia

Udal Pilotalekua beteta zegoela, **Aranzadi Ikastolako ikasleek** kurtso bukaerako jaia ospatu zuten eguakitzean. Bi urtetik batxilergora bitarteko ikasleek dantzak, bertsoak, kantuak, koreografiak, orkestak, antzerki lanak eta bestelakoak eskaini zituzten ordu eta erdiz, ikusleen gozamenerako. Guztira, **370 ikasle** inguruk hartu zuen parte, kurtsoari amaiera bikaina emanez.

# San Joan, San Joan berde...

## Ura, sua eta belarrak dira festa hauetako protagonistak

**Sanjoanek badute Euskal Herriaren historian esanahi eta jatorri propio bat, gaur egun gutxi ezagutzen dena. Sanjoanak suarekin bakarrik lotu izan ditugu beti, baina hori baino gehiago badago majiaz betetako gau honetan: ura, belar eta suarekin lotutako errito eta sinesmen ugari. Izaera berriztatzaile, garbitzaile bat daramate bere baitan. Eskolako umeentzat, udako oporren hasiera dira, eta oroitzapen horixe dakarkigute askori.**



JOSE DUESO

Bergarako etxe guztietako atarietan jartzen zen elorria, horrela etxea eta etxekoak babesten zirelakoan.

*"San Joan, San Joan berde,*
*subak eta zapuak erre,*
*(sorgiñak eta zapuak erre)*
*artuak eta garixak gorde,*
*biba San Joan berde!!!"*

(Herri askotan kantatu izan da, baita Bergaran ere)

*"San Joan heldu da*
*Sorgin beldurra galdu da!*
*Galdu bada, galdaila,*
*Ager ez daila sekula"*

Kristautasuna iritsi baino lehen ere era berezi batean ospatzen zen Euskal Herrian gaur egun San Joan gaua bezala ezagutzen duguna. Urteko gaurik motzena da, eta, beraz, baita urteko egunik luzeena ere. Nekazariak, nekazariak izaki, pentsatzekoa da beti bizi izan direla zerura begira, eguraldia eta fenomeno naturalen menpe. Horregatik, berebiziko garrantzia izan du antzinatik gau honek, eta errito, sinesmen eta sinbologia ugari bildu izan da bere inguruan.

Kristautasunak lehendik esistitzen ziren sinbologia eta sinesmenak bere egin zituen, Joan Bataiatzailearen figurarekin. Beraz, udako solstizioak Joan Bataiatzailearen festarekin bat egiten du. Berez purifikazioarekin lotutako gaua bataioarekin lotuz.

**SUA, SANJOANETAKO PROTAGONISTA**

Zeinek ez ditu Sanjoanak suarekin lotzen? Izan ere, plaza, kale eta baserrietan egin ohi diren suak izan dira, batik bat, denboran zehar mantendu diren ohiturak. Gaur egun, edozer erretzen da, baina bere jatorrian zentzu berriztatzaile eta garbitzailea du suak. Paradojikoa kontuan hartzen badugu Bergarako Udalak erreka inguruan egin ohi diren suak debekatu dituela, erreka inguruak zikintzen direla-eta.

Baserrietan, sasiak, belar txarrak edota traste zaharrez betetako gurdiak erretzen zituzten. Suaren inguruan biltzen zen jendeak kantuak, dantzak eta konjuroak egiten zituen, sorginak eta izpiritu txarrak uxatzeko, eta uzta oparoak eskatzeko. Suaren gainetik eta ondoren geratzen zen ke eta errautsen gainetik salto egiteko ohitura ere aspaldikitik datozen ohiturak dira, eta mantendu egin dira, gainera. Bergaran ez da inoiz sutzar handirik egin, baserrietan bakoitzak berea egin izan du. Horrela, mendi aldera begiratuz gero su txiki mordo bat ikusiko dugu han eta hemen eguakitz gauean. Gero, gelditzen ziren errautsak gaixotasunak saihesteko erabiltzen zituzten, etxera eraman eta leihotik kanpora jaurtiz.

Era honetako ohiturak eta festaren jatorrizko esanahia galduz doala dirudien arren, kuriosoa da ikustea zenbat eta zenbat ikaslek erretzen dituzten euren apunteak, alde batetik nazkatuta daudelako, baina bestetik, hurrengo kurtsora begira hutsetik hasi nahian.





Aurten ezin izango da surik egin erreka alboan, Udalak debekatu egin du eta. Hala ere, auzo eta baserri gehienetan ikusi ahal izango dira ziurrenik suak, ohiturari jarraituz.

## SANJOANEKIN LOTUTAKO SINESMENAK

- San Joan eguneko arratsaldean siesta egiten duenak ez du logurarik izango urte guztian zehar.
- San Joan egunean goizean goiz jaikitzen denak, ez da urte guztian goizean goiz jaiki ezinik ibiliko.
- San Joan egunean zilegi ei da esnea lapurtzea.
- Tximeletak harrapatzeko ohitura zegoen, etxera zoriona zekarrelakoan.
- Bittoriano Larrañagak kontatu digunez, goizean goiz batutako gereziek barruak garbitzeko ahalmena dute.

**URA, SUA BEZAIN GARRANTZITSUA**

Gau berezi eta majiko honetan, bestela ez daukan ahalmen garbitzailea hartzen du urak. Antzina, bazegoen erreketan bainatzeko ohitura. Ohitura hau kristautasunaren bataioko sakramentuarekin lotzen dute historialariek. Hala ere, kristautasunaren aurretiko kulturetan ere ura beti izan da elementu garrantzizkoa. Horrela, San Joan egunean bertan goizean goiz jaiki eta oinutsik ihintzez bustitako belarretan ibiltzeko ohitura zegoen baserrietan, baita Bergaran ere. Oraindik ere badira ohitura honi jarraitzen diotenak. Esaten da hori egiten duena ez dela urte guztian gaixotuko.

**LORE ETA LANDARE, GAITZ UXATZAILE**

Bergarako baserri eta etxe guztietako atariak hornitzen zituzten San Joan egunean. Alde batetik, atariaren gaineko aldean elorria jartzen zen, eta lurrean, berriz, garoa zabaltzen zen. Honela, urte guztian zehar gaixotasun, ekaitz eta bestelako gaitzak uxatzen ziren. Garoa hurrengo egunean kentzen zen arren, elorria urte guztian egoten zen atari, balkoi eta leihoetan. Ekaitza egiten zuen egunean, atariko elorri zati bat moztu eta erretzen bazen, etxea eta etxekoak ekaitzetik babestuta ei zeuden.

Duela urte batzuk arte Bergarako atari guztietan jartzen zen elorria. Gaur egun, berriz, gutxi batzuetan bakarrik ikus daiteke. Bittoriano Larrañagak gogoratzen duenez, garai hartan herriko enterradorea zen Benigno Zurutuza eta bere lagun batzuk etxerik etxe ibiltzen ziren atari guztietan elorria jartzen, San Joan bezpera gauean. Hurrengo goizean berriro egiten zuten ibilbide berbera, eta elorria jarritako etxeetako ugazabek txanpon batzuk ematen zizkieten. Uberan, esaterako, oraindik ere etxe askotan zabaltzen dute atarian garoa, Bittoriano Larrañagak esan digunez.

San Joan eguna egun alaia da, zoriona da nagusi. Urteko egunik alaiena, gainera. Egun horretan, eguzkia dantzan ateratzen ei da, eta horregatik-edo, urteko egunik alaiena ei da. Edo egunik alaiena delako ateratzen ote da eguzkia dantzari? Goizean goiz jaiki, eta badaezpada ere, begiak zabal begiratu beharko dugu ekialdera; beharbada ezusteko bat izango dugu, eta eguzkia dantzan ikusiko.<

# Fernando Markina arku tiratzailea Espainiako txapeldun beteranoetan

## Madrilen jokatutako txapelketan 1.288 puntu lortu zituen

**Fernando Markina bergararrak beteranoen mailako Espainiako arku tiraketa txapelketa irabazi zuen ekainaren hasieran, Madrilen. Bertara, Estatu osoko 30 bat tiratzaile bildu ziren, eta Markinak lortu zuen puntuaziorik onena, 1.288 puntu hain zuzen (1.440 puntu zen lortu zitekeen puntuaziorik onena).**


Fernando Markinak zazpi urte daramatza arku tiraketa praktikatzen.

Lehen aldia izan zen Markinak 1.250 puntutik gorako marka egiten zuena. Bere hitzetan, "egun ona izan nuen, eta puntuazio oso ona egitea lortu nuen. Gauzak nahi bezala atera zitzaizkidan Madrilen". Txapelketa 50 urtetik gorako tiratzaileei zuzenduta zegoen. Markinak 58 urte dauzka, eta orain zazpi urte hasi zen arku tiraketa praktikatzen. Poleazko arkua erabiltzen du.

Konpetizioko lehen egunean 80 m. eta 70 m.ko distantziatik 36na gezi jaurti behar izan zuen Fernandok, eta bigarren egunean, 50 m. eta 30 m.tik beste horrenbeste jaurtiketa egin zituen. Amaieran uste baino abantaila handiagoa atera zion bigarren sailkatu zenari, 68 puntuko aldea hain justu. Espainiako txapelketa Federazioak Madrilen dituen zelaietan jokatu zen eta Markinak txapeldunari zegokion trofeoa eskuratu zuen. Markina Euskadiko Federazioko monitorea da, eta Bergaran ere Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatutako ikastaroak eman izan ditu. Uda kanpainaren barruan ere berak emango du arku tiraketa ikastaroa. Bere ilusioa berak hain gustuko duen kirola bultzatzea da; "edozein adineko emakume zein gizonek praktika dezakete, eta ez da jendeak uste bezain kirol garestia. Hori bai, teknologiak zeresana badauka, eta zenbat eta ekipo hobea izan, askoz hobeto, beste kirolekin gertatzen den moduan".

### EUSKADIKO TXAPELKETA UZTAILAREN 16an

Datorren uztailaren 16an Beasainen jokatuko den Euskadiko Txapelketa absolutoan parte hartzeko asmoa dauka. Beasaingo Loinaz futbol zelaian maila ezberdineko tiratzaileak izango dira lehian, eta bere asmoa 1.300 puntu lortzera iristea da. Berak esan diguñez, "arkuarekin gabiltzan guztioi marka horretara iristea gustatuko litzaiguke, eta horretan ahaleginduko naiz, zaila izan arren. Puntuazio hori lortuta, berdin zait hamargarren tokian sailkatzen banaiz ere". Fernando Markina Legazpiko Luma taldeko partaidea da, eta astean sei bat orduz aritzen da entrenatzen, San Martzialen eta Legazpiko lokalean normalean. Astebarruan nahi baino denbora gutxiago dauka entrenatzeko; "astebukaeran ibiltzen naiz entrenatzen, eta izugarri gustatzen zait arkuarekin aritzea. Pultso ona eta kontzentrazioa nahikoa dira arkuarekin hasteko. Gainera, bizkarreko muskuluak lantzeko eta erlajatzeko oso kirol egokia da".

Bergaran jendeak uste baino arku tiratzaile gehiago dago; "herrian bertan arkuarekin gabiltzanok elkartu eta talde bat sortzea interesgarria litzateke, hortik aurrera lokal bat eskatu ahal izateko. Bergaran badago arkua duen jende dezente. Gero eta afizio handiagoa dago kirol honetarako eta federatuta egoteko modu bakarra ikastaro bat egin eta talde baten barruan egotea da".

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Amillaga, gasolindegi ondoan. Tf.: 943 76 57 34
ZABALETA
ERROTULOAK
Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

ARREGI
Eraikuntza materialak
Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tf. 943 76 27 93

# Udako kirol kanpaina martxan astelehenetik

**Udaleko Kirol** Zerbitzuak uda kanpainako programazioa kaleratu du. Interesatuek igeriketa, piraguismoa, aerobika, dantza, tenisa, golfa, defentsa pertsonala, eskalada, arku tiraketa, patinaia edo abentura kirola praktikatzeko aukera izango dute. Lehen txanda astelehenean jarriko da martxan, uztailaren 7ra bitartean. Bigarren txanda uztailaren 10etik 21era izango da, eta izen-ematea uztailaren 5era arte egongo da zabalik.

Orain arte Kirol Zerbitzuan jasotako eskaeren arabera, igeriketa, helduentzako aerobika eta haur igeriketa ditugu kirol arrakastatsuenak. Iñaki Ugarteburu teknikariaren hitzetan, "helburua uda partean kirol eskaintza zabaltzea da, neguan egin ezin diren kirolak egiteko aukera eskainiz".

Hainbat jarduera (kainoi jaitsiera, hidrospeed-a, rafting-a eta beste zenbait) egun jakinetan izango dira, Gallego eta Ebro ibaietan.



Besteak beste, aerobik ikastaroak izango dira uda kanpainan. ARTXIBOA

## AITOR REMENTERIA / Triatleta

# "Zarauzko moduko triatloia urtean behin egiteko da"

**Aitor Rementeriak Zarauzko triatloian parte hartu zuen zapatuan, eta 57. postuan sailkatu zen. Partaideek igerian 2,5 km., bizikletan beste 82 eta, azkenik, korrika 20 km. egin behar izan zituzten. Horrez gain, 35ºCko tenperatura jasan behar izan zuten. Aitorrek bost ordu eta bi minutu behar izan zuen.**

**G.** Zer moduz bukatu zenuen?

**E.** Ondo. Lasai hartu nuen proba, eta erlojuari ez nion begiratu ere egin. Beroarekin ez naiz gustura ibiltzen, baina zapatuan uste baino hobeto bukatu nuen.

**G.** Zein probatan aritu zinen ondoen eta zeinetan sufritu zenuen gehien?

**E.** Igeriketan ibili nintzen okerren. Derrigorrezkoa zen neoprenozko trajearekin irtetea eta ohitzeke nago horrela igeri egitera. Ondoen, berriz, bizikletan ibili nintzen. Zirkuitu gogorra zen, eta %18ko aldapak ere tartean ziren. Aldapan gora postu asko aurreratu nituen. Jendea bizikletatik jaisten zen. Korrikako probako azken 8 kilometroak gogorrak egin zitzaizkidan, beroagatik batez ere.

**G.** Horrelako probak ez dira gogorregiak?

**E.** Urtean behin egitekoak dira. Orain dela 12 urte, Zarauzko proba honetan parte hartzeko asmoa neukan, baina bi egun falta zirela istripu bat izan nuen bizikletan, eta ezin izan nuen parte hartu. Ordutik gogoa neukan. Baina bai, proba gogorra da. Zapatuan ere 209 partaide atera ginen, eta 74 lagun erretiratu ziren. Hau baino triatloi gogorragoak ere badaude, "iron-man" izenekoak, eta hor distantziak gehiegizkoak dira: 3,8 km. igerian, 160 bizikletan eta maratoi bat korrika.

**G.** Zelako entrenamenduak egin dituzu Zarauzko probari begira?

**E.** Astean hiru aldiz korrika (15-20 km. tartean) eta beste hirutan bizikleta (80-100). Horrez gain, astean bost egunetan igerian egiten nuen, 2-3 kilometro egunero.

**G.** Udara begira, zer?

**E.** Domekan Donostiako triatloian hartuko dut parte. Proben distantziak Zarauzkoaren erdiak dira, niretako egokiagoak. Gero atsedena hartzeko asmoa dut.






KONDE PANADEROKUA
Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

OGIZUN koop. elk. okindegia
San Pedro 21 BERGARA 943 76 20 49
Zubillaga z/g OÑATI 943 78 24 13

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

## JUANINA GARAI. Bergarako entrenatzailea

# "Agresibitate puntu batekin joko azkarra duen taldea nahi nuke"

**Juanina Garai arrasatearrak ilusioz hartu du Bergarako futbol talde nagusia entrenatzeko proposamena. Joan zen urtean Lehen erregional mailako Arrasate taldea gidatu zuen. Garaik 37 urte ditu, eta Aretxabaletako enpresa batean lan egiten du.**



Juanina Garaik Arrasateko azpiko kategorietan lan egin du batik bat orain arte.

ARRASATE PRESS

**G.** Zela sortu da Bergara entrenatzeko aukera?

**E.** Bergarako jaietan, eguakitzean, proposatu zidaten, eta nik hiru bat egun behar nituela aztertzeko erantzun nien zuzendaritzakoei. Handik egun batzuetara baietza eman nien, eta oso pozik nago. Ez daukat esperientziarik Hirugarren mailan, baina lan ona egiteko itxaropena daukat.

**G.** Salto handia da Lehen erregionaletik Hirugarren mailara artekoa?

**E.** Nabariko da. Erregionalean maila oneko laupabost talde daude, eta gainerakoak ia-ia lagun taldeak dira. Hirugarren mailan, lehia izugarria dago. Hor daude Reala, Baskonia, Durango, Eibarrekin ere ikusi behar zer gertatzen den... Talde gogorrak dira denak, eta kategoria zaila da.

**G.** Taldeari buruz zer dakizu?

**E.** Amaitu berri den denboraldian bost bat partidutan ikusi ditut, eta meritu handiko denboraldia egin dute. Kontuan izan behar da orain gutxirarte Lehen erregional mailan zegoen talde beretsuarekin eutsi diola kategoriari. Herriko jokalariekin hori lortzea ez da gutxi, eta duen balioa eman behar zaio. Hasiera batean, datorren denboraldirako helburua ere hori izan beharko litzateke, kategoriari eustea. Jokalariek esperientzia handiagoa izango dute, eta sailkapenean zenbat eta gorago egin, hobeto.

**G.** Zelako taldea izatea gustatuko litzaizuke?

**E.** Baloia azkar mugitzen duen taldea, eta baloia galtzen denean agudo errekuperatzen saiatzen den horietakoa, agresibitate puntu bat duena. Joko azkarra egitea gustatzen zait.

**G.** Dueñasek eta Oxelek alde egin dute. Fitxaketa berririk izango da?

**E.** Aurrealdean Oxelen falta nabariko dela uste dut, eta beharbada, aurrelariren bat fitxatu beharko dugu, nahiz eta jakin Bergarako jubenil taldean jokalari interesgarriak daudela. Bestalde, Mikel Osoro kapitaina operatu berri dute, eta denboraldi hasieran baja izango da. Beraz, defentsa indartzea ere interesgarria izan daiteke.

**G.** Harrobiko taldeekin lan egitea atsegin duzu? Jubenil taldeak denboraldi bikaina egin du.

**E.** Bai, gainera uste dut horregatik fitxatu nautela, harrobiko taldeekin lan egitea gustatzen zaidalako. Bergarako kasuan jubenil taldeko 10 bat jokalari hasiko dira talde nagusiarekin entrenatzen, eta hortik ikusiko dugu zer nolako plantila osatzen den.

**G.** Taldea presidente barik egotea kezkagarria da zuretzat?

**E.** Uste dut batzar orokorra egunotan egitekoa dela, eta badirudi jende berria dagoela taldearen zuzendaritza hartzeko prest. Horrek ez nau kezkatzen.


GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

# IPINTZAKO futbol txapelketa





**Lau talde kanporatuta**

Nagusien mailan hiru talde kanporatu dituzte beren partiduetara ez aurkezteagatik. Tartean Bildurbarek iazko txapeldunordea txapelketatik kanpo geratu da. Azken urteotan bikain aritu den taldeak seriotasun gutxi azaldu du aurten. Beccia eta Hotel Amuskibar taldeek ere ez dute txapelketan jarraituko, elkarren aurka jokatu beharreko partidua bertan behera geratu zelako. Kadete nesken ligan, berriz, Eibartarrak taldea izan da kanporatuta. Azken jardunaldian liderra genuen taldeak agur esan dio txapelketari. Bestalde, Osintxuk sendo jarraitzen du nagusien B multzoan, azken jardunaldian A Ze Flaxari 3-0eko emaitzarekin irabazi ondoren. Mongatxurrak ere jokatutako partidu guztiak irabazi ditu. Nesken kategorian Baleike (kadeteetan) eta Lai Lai Lai (seniorretan) lider sendoak ditugu oraingoz.

## azken emaitzak

**NAGUSIAK**

| | |
|---|---|
| Mongatxurrak-Tojhu | 2-0 |
| Arloteak-Fatxurtu | 4-0 |
| A Ze Flaxa La Guipuzcoana-Osintxu | 0-3 |
| Mongitxarrak-Matxakategi | 0-2 |
| Wartxutale-Gore | 0-1 |
| Fo Fo Fo-Txokokuak | 5-1 |

**BETERANOAK**

| | |
|---|---|
| Txipiron-Sora | 4-4 |
| Bar Canalejas-Os Jardineiros | 5-1 |
| A Ze Flaxa-Bildurbarek Opel Lam | 8-1 |
| Aintzinakoak-Ezinleike | 3-5 |

**NESKAK**

| | |
|---|---|
| Eka-Jo ta ke | 9-0 |
